

Zenbat aldiz ez dugu entzun, bada, hizkuntza kontuetan gauzak ez direla gehiegi aldatu gure artean. Politikariek, omen, ez dituzte eskura dituzten baliabide guztiak abian jartzen; ez dute, azken batean, zinezko borondaterik gauzak aldatzeko. Horregatik ez du egin euskarak aurrera.

Hain segur, zenbait gauzatan edo askotan, egin ditugun urratsak ez dira aski izan; puntu anitzetan hanka sartu dugu, eta interes pertsonalek moteldu dituzte gauzak behin baino gehiagotan. Baina, oro har, ezin da ukatu Sabino Aranak bere mintzaldia eman zuenetik anitz gauza aldatu direla, eta gure hizkuntza orduan baino aise hobeki dagoela. Azalekotik hasteko: Aranak erdaraz eman zuen hitzaldia, gaur, egoera berdintsuan (euskararen gaineko eztabaida gune batean, esan nahi dut), nekez gertatuko litzatekeena. Ez dut hemen zehaztuko non egin dugun aurrera, aldizkari honetan parte hartzen dutenen artean bai baitira ni baino zuzenago eta modu egokiagoan mintzatuko direnak horretaz. Aranaren garaian ez zen amesten unibertsitatean arrunta gertatuko zela euskaraz aritzea; ez zen amesten hau bezalako mintegi bat antolatu eta ondoren aldizkari batean argitaratuko zirela lanak euskaraz normaltasun osoz; ez zen amesten idazleak, musikariak, itzultzaileak, kulturagileak... euskaraz arituko zirela zerbait arraroa egiten ari zirela pentsatu gabe; ortografia komuna nahi zuen Aranak, eta urteak pasatu baziren ere berak hori aldarrikatzen zuen hartatik, badugu orain ortografia bat denok baliatzen duguna; ez zekien Aranak telebista bat zer zen, baina jakin balu ere ez zitzaion buruan sartuko japoniar bat ederki ikusiko genuela hizketan euskaraz pantaila txiki horretan; ezingo zukeen irudikatu diputaziora joan eta idazkiak euskaraz uzteko aukera izan zitekeenik ere; ez zitzaion burutik pasatuko irakasleak kontratatzekotan, euskaraz zekitenak bakarrik kontratatuko zirela. Gertatu diren gauza anitz amets hutsak ziren. Edo ez ziren amets izatera ere iristen. Jauzia ikaragarria izan da.

Nahiago dut, hortaz, alde horiek azpimarratu beharrean euskararen munduan ikusten ditudan goibel batzuetan pausatu begiak. Honako hauek dira, batez ere:

1) Ez dago gure artean euskaldun elebarkorrik. Ez dakit ona edo txarra den (lehen tasun bakarra hizkuntza mantentzea baldin bada ez da ona, jakina, baina badut uste beste lehen tasun batzuk ere baditugula). Konstatazioa da, ez besterik, horrek errealitatearen beste alderdi bat, lehen ez bezalakoa, agerian uzten baitu. Euskaldun elebarkorrik ez denez, eta ingurutik indar handia egiten duten hizkuntzek inguratzen gaituztenez, lehenago familian gertatzen zen hizkuntzaren transmisio bakar eta indartsu hura hautsi egin da. Hautsi da, umeari anitzetan hizkuntza bat baino gehiago transmititzen zaiolako (dela familian, eskolan edo hedabideetan). Baina transmisio hauste

GAUZAK EZ DIRA SOBERA ALDATU

PELLO SALABURU

EUSKALTZAIN OSOA ETA EHUKO IRAKASLEA

Zergatik gertatzen da euskaldun batzuk elkartu eta erdaraz aritzea: euskarak haiengan indar nahikorik ez duelako? Euskara maite ez dutelako? Euskara arrotz sentitzen dutelako? Garai bateko militantismoa galdu da aspaldi. Datu hau biziki interesgarria gerta daiteke hurrengo urteetako garapena ikusteko

Datu hau biziki interesgarria gerta daiteke hurrengo urteetako garapena ikusteko. Gure begiak itxi ditzakegu, eta hori egoera sozio-linguistikoagatik dela esan (eta ez dut nik ukatuko horrek ere ez duela zerikusirik), edo euskara batua ez delako euskalkiak bezain indartsua (hau ergelkeria bat da), baina badut beldur hemen, Axularrek zioen gisan, euskaldunok ez ote garen errudun, eta ez euskara.

Esan ohi da euskararekin aurrera egitekotan, hiru gauza behar ditugula, eta ezin duela batek ere huts egin: dirua, legeria eta norberaren borondatea euskaraz aritzeko. Dirua ikusten dut. Legeria ere badugu. Jakina, diru eta lege gehiago ere izaten ahal ditugu, baina ez dut uste norbaitek zerbait euskaraz ez irakurtzeko kontuak zerikusirik duenik horrekin. Behar dugun hirugarren zer horrek sortzen du nire baitan galdera: badugu borondateirik? Eta galderari erantzuna emateak sortzen dit beldurra.

horrek eragina du gure hizkuntzaren ereduari eta hizkuntzaren erabilerari ere.

2) Hizkuntza aldatzen ari da. Beste konstatazio bat. Ez ona ez txarra nahitaez. Hizkuntza guztiak aldatzen dira (aski da Aranaren erdararekin erkatzea). Niri kosta egiten zait “anitzta”, “delegaritzta”, “emendakin” edo “errentagarritasunaren baitan” bezalako exotismoak irenstea, edo beste mota bateko ostikoak hain modu naturalean onartzea, baina kontuak diren bezalakoak dira. Jakitun izan behar dugu, hori bai.

3) Hitzun anitzek ahulezia handia dute hizkuntzarekin. Edo ahuleziarik ez badute, ez zaie batere interesgarri egiten hizkuntza, ikusten denez. Ez da haientzat erakargarria. Honek aise gehiago kezkatzen nau. Zergatik gertatzen da euskaldun batzuk elkartu eta erdaraz aritzea: euskarak haiengan indar nahikorik ez duelako? Euskara maite ez dutelako? Euskara arrotz sentitzen dutelako? Garai bateko militantismoa galdu da aspaldi.